

Frankistak Nafarroa askatu nahi, orain

Deia, 1977-08-24.

Zozoa izateko ez da talento handirik behar.

Aurpegia izatea, nahiko.

Nafarroako Diputazioan dauden lehengoak, zaharrak, Franco-pean "amen"-ka irauin duten hoiek berak, hasi dira orain Nafarroako Foruen eske.

Ez eske bakarrik: Foruen itzultzea esijitzen.

Eta non egon dira berrogei urtean!

Nafarroa bere menpean eduki dute urtetan. Bai, *menpean* da hitza. Ez dira Nafarroaren askatasunaz batere arduratu. Herriaren babesaren orde, behatzak eta azpijokoak izan dira gehien gizon hoi en eutsigarri. Beti agintekeria, ez dira inoiz herriaz, herri xeheaz, kezkatu, eta sudurrak ba doazela esan dienean atera dute inbentoa, asmakizun bitxi hau.

Gezurra dirudi, baina halaxe da.

Eta ez dira ezjakinean ari.

Gizon hoiek ikusi dute Nafarroa bide-gurutze batean dagoela, eta bide bat edo beste hartu duela. Aukerak, garbiak dira: 1.- Nafarroa, herri bezala, bere buruaren jabe izatekotan da. 2.- Europa-ko errejioak demografi eta lur eta ekonomi aldetik neurri batzu eskatzen ditunez, aukera bat egitera behartua dago. 3.- Aukera honek, hoietaz gainera, herritasuna, kultura eta historia kontuan hartu beharko ditunez.

Euzkadi-runtz doa.

Azken puntu honen argi Manuel Irujo jaunak eman du berriz:

Gure lau herrialdeak, *batera*, galdu zituzten Foruak; 1839-ko Legea dela-ta. Lauak, eta lauak bakarrik, dira garai hortan Espainiako Estatuto Foru-dunak, eta, hala, lauei batera kentzen dizkie.

Orain, 1839-koaren legekentzea egiten bada, lauak geratzen dira Foruz ornituak.

Iturrietara berriz.

Hemen orain hiltorian dagoen Diputazioa ez dabil arrazoi bila, lege garbi bila, historiaren iturri bila.

Herriak aukeratu berri dituen gizonak Foruak, Foruen ispiritua, gureganatzeko instituzio bila hasi eta hartuemanak aurreratzen hasiak direnean sortu zaie behatzez izentatutako hoiei Nafarroak Foru osoak eta berehala behar dituenaren gogoa.

Agintea zutenean egin behar zioten eskabide hau Franco-ri.

Orain, ez du meriturik.

Eta batere badu, aurkakoa da: euskaldunok egiten ari garen ahaleginak zapuzteko merezimendua.

Egia esan, honelako zozokeria egiteko ez da talentu handirik behar.

Falta, hobe.

Aurpegia izatea nahiko.